

GORLIZKO HONDARTZA

KALITATE ETA
INGURUMEN SISTEMAK



ZIURTATUTAKO ARAUAK ETA KUDEAKETA OROKORRA

ZIURTATUTAKO ARAUAK: ISO 9001:2015
(kalitatearen kudeaketa), ISO 14001:2015
(ingurumen kudeaketa) eta ISO 13009:2016
(hondartzen Q turistikoa). Gorlizko hondartza da es la turismoaren Q ziurtagiria duen Euskadiko hondartza bakarra.

- Bizkaiko Foru Aldundiak koordinatzen du Bizkaian ziurtagiria duten 15 hondartzen ISO 9001 eta 14001ren kudeaketa, baina udal bakoitzak bere erregistroak, parteak, lanerako planak eta abar bete behar ditu.
- Hondartzaren Q turistikoa kudeaketa integrala udaleko Tokiko Agenda 21 zerbitzuaren bidez egiten da.

- Bizkaiko Foru Aldundia arduratzen da sorospen eta salbamendu zerbitzuaz, zaintza zerbitzuaz (Hondartzainak), hareatzako dutxak, iturriak eta oinak garbitzekoak instalatu eta mantentzeaz, hareatzan zakarrontziak jartzeaz eta horien tratamenduaz, hareatza garbitzeaz, itsasertzaz eta pasealekuaz.
- **Gorlizko Udala** arduratzen da komunen eraikinak garbitu eta mantentzeaz, pasealekuaren mantentze-lanez, ekitaldiak kudeatzeaz, kirol jardueraz eta jarduera nautikoez eta izozki postu eta txiringitoez (denboraldiko zerbitzuak edo Ustiapen Plana).
- **Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila** arduratzen da *bainurako uraren kalitatea aztertzeaz* astero (Gorlizen 3 laginketa puntu daude), eta komunak, txiringitoak eta abar *in situ* ikuskatzen dituzte. Bainu denboraldiaren ostean, hondartzaren kalitate sanitarioaren txostena bidali ohi du.

ZIURTAPENAREN FUNTZIONAMENDUA

- ▶ ISO 9001 (kalitatea) eta ISO 14001 (ingurumena): 2012. Urteaz geroztik. Hondartzaren Q turistikoa: 2014. Urteaz geroztik.
- ▶ Urtero egiten dira sistemen kanpo eta barne auditoriak, eta bainu denboraldian* izan ohi dira. Hiru urtean behin berriz ziurtatzen da, eta gainerakoak jarraipen auditoriak dira. Kalitateko eta ingurumeneko auditoriak (kanpokoak nahiz barnekoak) Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzen ditu, eta ! turistikoarenak, berriz, Gorlizko Udalak.
- ▶ Bainu denboraldia hasi baino lehen, aldundiak bilera bat deitu ohi du alderdirik esanguratsuenak errepasatzeko, aldaketen berri emateko eta abar. Positiboki baloratu ohi da ordezkari politikoak bertan izatea.
- ▶ Bainu denboraldia amaitzean, beste bat deitzen dute itxierarako, ondorioak ateratzeko, jarduketak laburtzeko eta abar. Positiboki baloratu ohi da ordezkari politikoak bertan izatea.
- ▶ Bainu denboraldian zehar, aldundiak hileroko txostenak bidaltzen dizkie, hainbat daturekin (bertaratzeak, kontsumoak, hondakinak, SOS jarduketak...), udal guztiei. Tokiko Agenda 21etik bidaltzen dira hileroko ondorioak txosten horietara.

*Bainu denboraldia: ekainaren 1etik irailaren 30era arte

DENBORALDIKO ZERBITZUAK ETA EKITALDIAK


- **Denboraldiko zerbitzuak** (urtero eskatzen zaio baimena Kosta Zerbitzuari):
 - Kirol jarduerak eta jarduera nautikoak: 5 surf, piragua etab. eskola (Troka, CaboBillano, Aloka Surf eta Sup, Bigui Surf eta Surf&Skate) eta ur parke 1 (New Diversion Park). 2018an adjudikatuak, 2021era arte (barne).
 - Izozki postuak eta txiringitoak: Izozki postu bat PIeren aurrean, txiringittoa Busterrin eta txiringittoa Bunkerraren gainean. Aurten adjudikatzeko zain. Normalki lau urterarako egiten da.
 - Turismo informazio puntua: Turismo Bulegoak kudeatzen du.
 - Udalak antolatutako kirol ikastaroak (igeriketa eskolak, yoga eta abar): Kulturekoak, Emtesport bidez.
- **Ekitaldi puntualak** (hirugarrenek edo udalak berak antolatuta):
 - *Kosta Zerbitzuaren baimena* izan behar dute beti.
 - Udalak aldeko txostena egiten du Alkatetza Dekretu bidez, baldin eta erakunde antolatzaileak honako hauek aurkezten baditu: babes zibileko eta istripuetako aseguruak, anbulantziaren laguntza (beharrezkoa balitz), larrialdi eta segurtasun neurriak, azalpen memoria, eta abar. Horrez gain, positiboki baloratu behar da ekitaldi hori egitea.

UDALAK KUDEATUTAKO ALDERDIAK


- ▶ **Aplikatu beharreko legeria:** Betetzearen identifikazioa eta ebaluazioa (estatu mailako legeriatik tokikora artekoa hartzen du barne).
- ▶ **Hornitzaileen ebaluazioa.**
- ▶ **Tartean daudenentzako prestakuntza:** bainu denboraldiaren hasieran dossier bat ematen zaie jarduera nautikoen, txiringitoen eta izozkien arduradunei, turismo puntuko dinamizatzaileriei eta komunak garbitzen dituzten langileei.
- ▶ **Komunen garbiketa:** udan egunean hiru aldiz garbitzen dira, egunero, eta garbiketa horiek paper batean erregistratzen dira (kontsumitutako materiala barne). Datu horrek hileroko prozesatzen dira eta aldundiari bidaltzen zaizkio. Produktu ekologikoak erabili behar dira.
- ▶ **Instalazioak eta pasealekua mantentzeko lanak:** Aldundiak gorabehera gisa bidali ohi ditu udalak konpondu behar dituen edo udalaren jarduketa behar duten elementuak (apurtutako eskudelak, pasealekuko zaborrontziak...). Parte horiek brigadari eta aparejadoreari birbidaltzen zaizkie. Hamabostean behin berrikusten da komunak eta pasealekuaren egoera (su-itzaigailuak, kartelak...).
- ▶ **Erabiltzaileen kexak ebatzi eta erantzutea:** Hondartzainaren zerbitzuan edo udalean bertan aurkeztuak.
- ▶ **Komunikazioen jarraipena:** Hainbat erakunde (Osasuna, Aldundia, Kosta Zerbitzua, ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeak...) eta alderdi interesdunekin izandako komunikazioak erregistratu eta izapidetzen dira.

UDAL KUDEAKETA ESTRATEGIKOA

- ▶ Aldundiak kalitate eta ingurumen politika bat ezartzen du, Bizkaiko hondartza guztiak barne hartzen dituena.



- ▶ Udal bakoitzak aldiro-aldiro aztertzen ditu hondakinak sortzeari, ur kontumoei, erabiltzaileen gogobetetzeari (Hondartzainek bertatik bertara inkestak egiten dituzte, eta Geoikerrek aztertzen ditu), kexei, gorabeherei, osasun txostenen ondorioei, legea betetzeari eta abarri buruzko datuak.



- ▶ Datuak aztertu ostean, udalak **arriskuak eta aukerak aztertu eta ezartzen ditu, arrisku higieniko-sanitarioak, ingurumenari lotutako alderdiak, beharrianak eta interesdunen itxaropenak**, besteak beste.




- ▶ Emaitza guzti horiekin, udalak **ezartzen ditu testuingurua, konpromisoak eta kalitate nahiz ingurumen helburuak denboraldi bakoitzerako. Gainera, Ekintza Plan Estrategikoa, Arrisku eta Aukeren Ekintza Plana eta Alderdi Interesdunen Komunikazio Plana egiten du** (plan horiek hainbat urterako izan daitezke).

HONDARTZAREKIN LOTUTAKO BESTE GAI BATZUK


- ▶ 2016ko ekainaren 22ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen **Gorlizko pinudia eta hondartza erabili eta gozatzeko ordenantza**.
- ▶ Hondartza ziurtatzen duten arauetan ezarritako baldintzak Kontratazio Pleguetan sartu ohi dira (komunak gutxienez egunean hiru aldiz garbitzea, bainu denboraldia baino lehen desinfektatzea, arratoiak eta intsektuak hiltzea, txiringitoetako janariei hileroko azterketa mikrobiologikoak egitea, Garbiketa eta Mantenteze-lanen Plana izozki postuentzat eta txiringitoentzat, hozkailuen tenperaturaren erregistroa, hondakinen bereizketa, prezioak eta ordutegiak ikusgai...).

2019KO DENBORALDIKO DATUAK

ERABILTZAILE KOPURUA 2019



ERABILTZAILE KOPURUA 2012-2019



BAINURAKO UREN ANALITIKEN EMAITZAK

URTEA	LAGIN KOP.	BIKAINA	NAHIKOA	EZ NAHIKOA
2016	48	42	6	0
2017	54	54	0	0
2018	54	48	3	3
2019	54	51	3	0

GOGOBETETZE INKESTEN EMAITZAK



	2016	2017	2018	2019
OROKORRA	9,00	9,18	9,02	9,11
URAREN GARBITASUNA ETA KALITATEA	7,66	8,19	7,12	7,72
SEGURTASUNA	9,26	9,18	9,16	9,26
ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK	7,78	8,00	7,45	8,25

Bizkaiko 3. hondartzarik onena Bizkaiko hondartzarik onena Bizkaiko 2. Hondartzarik onena

Bizkaiko 2. Hondartzarik onena



2019KO DENBORALDIKO DATUAK

UR KONTSUMOA (litro/100 erabiltzaile)



— Erabiltzaileek eragindako hondakin ez arriskutsuak/ Residuos no peligrosos de personas usuarias (Kg)
— Kg. Reciclado (Papeleras amarillas)


UR KONTSUMOA EDIFIZIO BAKOITZEKO (m³)



— Lehengai arriskutsuak/100 erabiltzaile (litro). Materias Primas y Auxiliares Peligrosas / cada 100 personas usuarias (Litros)
— Lehengai ez arriskutsuak/100 erabiltzaile (litro).Materias Primas y Auxiliares NO Peligrosas / 100 personas usuarias (litro)

2019KO DENBORALDIKO DATUAK

SOS-ek ARTATUTAKO PERTSONAK



SOS GORABEHERA MOTAK 2019

Nekea	4
Ur korrontekak	4
Gorputz arraroa	10
Gaixotasuna	6
Zauria	226
Eguzkiak eragindako lesioak	1
Beste batzuk	77
Intsektuen ziztada	29
Marmoken ziztada	0
Sabiroiaren ziztada	58
Xiringa sastada	0
Eguzkiarena ez den erredura	3
Traumatismo itxia	28

SOS GORABEHERA MOTAK 2019

Desfibriladorea	0
Kardio-arnaseko bihotz-biriketako bizkortzea	0
Bihotz-biriketako bizkortze bentilatorioa	0
Sanitarioa	418
Soziala	28
2019KO SOS GORABEHEREN EMAITZAK	
Alta	437
Ebakuazioa	9
Hildakoa	

2019KO DENBORALDIKO DATUAK

KONPROMISOAK

- ✓ Une-oro eguneratutako informazioa izatea eskura (gutxienez 2 panel).
- ✓ Megafonia bidez mezuak igortzea eguraldiari buruz eta hondartzako segurtasun baldintzei nahiz baldintza higieniko-sanitarioei buruz (egunean 2, gutxienez).
- ✓ Une-oro jasotzea kexak eta iradokizunak, eta gehienez ere 7 egun naturaletan erantzutea (erantzutea izapidetzeko beharrezko datuak dituzten kexen %100).
- ✓ Istripuak prebenitzeko, sorospeneko eta arreta emateko kudeaketa zerbitzua 9 orduz jarraian emango da. Ziurtatuko da gehienez ere 4 minutuan emango zaiola arreta hondartzaren gunean gertatutako edozein gorabeherari (azken simulakroaren arabera, 3 minutuan).
- ✓ Denboraldian zehar gutxienez egunean behin garbitzea hareatza.
- ✓ Egunean gutxienez hiru garbiketa egitea komunetan.
- ✓ Denboraldian zehar, janaria eta edaria saltzeko gutxienez bi postu jartzea erabiltzaileen esku (izozkien postu bat eta bi txiringito).
- ✓ Mugikortasun urriko pertsonentzako gutxienez 15 plaza ziurtatzea.

HELBURUAK

- ✓ Lortu nahi izan zen 2019ko denboraldian zehar itsasora botatako hondakin ez arriskutsuen kopurua honako hau izatea, gehienez ere: 7.751 kgr. Zuzendaritzaren berrikusketa txostenaren arabera, 100 erabiltzaile bakoitzeko itsasoan utzitako hondakin ez arriskutsuen datua 4,29 izan da; horrenbestez, kiloak 8.792,86 izan dira. Helburua ez da betetzat jo; beraz, 2020ko denboraldian zehar alderdi horretan lanean jarraitu beharko dugu.

INGURUMENARI LOTUTAKO ALDERDI ESANGURATSUAK

- ✓ Erabiltzaileek udal horniketa sareetatik datorren ura kontsumitzea (helburu bat ezarriko dugu).
- ✓ Hondartzetako instalazioetako hondakin uren isurketa (dutxak, iturriak, oinak garbitzekoak).
- ✓ Erabiltzaileen hondakin ez arriskutsuak (helburu bat ezarriko dugu).
- ✓ Itsasoak botatako hondakin ez arriskutsuak (ezin dugu horren gain jardun).
- ✓ Erabiltzaileen sentsibilizazioa.
- ✓ Itsasoko baldintza txarrak (galerna, hondoko itsasoa, erresaka korronteak) (ezin dugu horren gain jardun).

2019KO DENBORALDIKO DATUAK

INKESTETAN BALORAZIORIK ONENA JASO DUENA

- ✓ Balorazio orokorra.
- ✓ Kontserbazioa.
- ✓ Segurtasuna oro har, sorosleen zerbitzua eta horien tratua nahiz adeitasuna. Hondartzainen eraginkortasuna eta herri segurtasuna: lapurretak eta ebasketak.
- ✓ Zerbitzu eta ekipamenduak oro har: erabiltzeko erraztasuna, erabilgarritasuna eta megafoniaren argitasuna, zapaltzeko egurrezko pasabideak eta dutxa eta komunen kopurua.
- ✓ Arazorik ez izatea langileengana euskaraz zuzentzeko.
- ✓ Umeentzako eskumuturrekoen zerbitzua ezagutu eta baloratzea.
- ✓ Surflariak eta bainulariak bereizteko banderen sistemaren eraginkortasuna.
- ✓ Bainatzea debekatzeko bandera berriaren sistemaren argitasuna.
- ✓ Mugikortasun urria dutenentzako sarbideen ezagutza.
- ✓ Zenbat ordu egunean hondartzan
- ✓ Lagundutako bainu zerbitzuaren ezagutza.
- ✓ Komun gehiago eta hobeak jartzea, garbitasun handiagoa eta komun

INKESTETAN BALORAZIORIK TXARRENA JASO DUENA

- ✓ Aldundiak sustatutako kanpainaren ikusgarritasuna.
- ✓ Hondartzaren kalitate eta ingurumen ziurtagirien ezagutza eta garrantzia.
- ✓ Uraren osasun kalitatearen kontrolari buruzko ezagutza.
- ✓ Hondartzara joateko autoa erabiltzen duten pertsonen kopurua.

OSASUN TXOSTENAREN (EJ) GOMENDIOAK

- ✓ Komun kanpoko dutxetan putzuak sortzea ekiditeko neurriak hartzea.
- ✓ Udal sareak hobeto ezagutzea eta sarera konektatuta ez dauden elementuak identifikatzea.
- ✓ Txatxarro eta Gasatxas erreken karga mikrobiologikoa ikusita, URari azterketa bat eskatzea, ekarrien arrazoiak zehazteko eta ikusteko ea horiek murrizteko neurriak har daitezkeen.